

202. ALDIZKARIA - 2019ko urriaren 11

OLTZA ZENDEA

Laburpena, garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzako, elkartasuneko eta interes sozialeko proiektuak eta jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdi publikoarena (GGKEak, 2019)

Laburpena, deialdi publikoarena; horren bidez emanen zaizkie dirulaguntzak garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzako, elkartasuneko eta interes sozialeko proiektuak eta jarduerak egiten dituzten garapenerako gobernuz kanpoko erakunde, instituzio, fundazio edota elkarteei. 2019ko aurrekontua.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz, argitara ematen da deialdiaren laburpena; haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>). DDBN (kodea): 474938.

Alkatetzaren irailaren 24ko 383/2019 Ebazpena, garapen bidean diren herrialdeetan lankidetzako, elkartasuneko eta interes sozialeko proiektuak eta jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdi publikoarena (elkarte, instituzio, fundazio eta/edo gobernuz kanpoko erakundeentzat), 2019ko aurrekontutik.

Lehena.—Onuradunak.

Deialdian parte hartu ahal izanen dute garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek eta horien proiektuek, baldin eta deialdi honi erantsitako oinarrietako baldintzak betetzen badituzte, eta Garapenerako Laguntzarako Batzordearen herrialde onuradunen zerrendako kideetako batean eginez gero jarduera.

Bigarrena.—Xedea eta helburua.

Oinarri hauen xedea da arautzea Oltza Zendeako Udalak, deialdi publikoaren bidez eta bere aurrekontuaren mugen barnean, emanen dituen laguntzen izapideak eta baldintzak. Aipatu dirulaguntzak emanen zaizkie irabazi asmorik gabeko eta gobernuz kanpoko erakunde, instituzio, fundazio edota elkarteei, lankidetzako, elkartasuneko eta interes sozialeko proiektu eta jarduerak gauza ditzaten garapen bidean diren herrialdeetako herritarren oinarrizko beharrianak asetzeko; berdin herrialdean bertan proiektuak gauzatuz, edo herrialde horietako pertsonekin gure komunitatean jarduerak eginez, hala pasadizoan diren pertsonekin nola pertsona lekualdatuekin.

Hirugarrena.—Oinarri arautzaileak.

<http://ayuntamientoolza.sedelectronica.es>

Laugarrena.—Zenbatekoa.

Laguntzatarako kuota guztira: 5.500,00 euro izanen da.

Bosgarrena.—Eskaerak aurkezteko epea.

Proiektuak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Oltza Zendea, 2019ko irailaren 24an.—Alkatea, Moisés Garjón Villanueva.

Iragarkiaren kodea: L1912538